



ZIZURKILGO UDALA



**“ZIZURKILGO FUTBOL ZELAIAREN BIRMOLDAKETA” PROIEKTUAREN
LANAK PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ, PUBLIZITATEAREKIN ETA
PRESAKO IZAPIDETZEAZ KONTRATATZEKO BALDINTZA
ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA**

1. klausula. Kontratuaren xedea eta kalifikazioa.

Kontratuaren xedea da “Zizurkilgo futbol zelaiaren birmoldaketa” Proiektuaren lanak egitea. Lan horien baitan sartzen dira gaur egungo belarraren ordeztu belar artifiziala jartzea eta argiteria berritzea, Girder Ingenieros S.L. enpresak idatzitako proiektu teknikoaren arabera.

Aipatutako kontratuak lanen administrazio-kontratuaren kalifikazioa du, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 6. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. klausula. Hautaketa eta esleipen prozedura.

“Zizurkilgo futbol zelaiaren birmoldaketa” Proiektuaren lanen kontratua esleitzeko modua prozedura negoziatu bidezkoa da, publizitatearekin eta presako izapidetzeaz. Kontratazio-organoak hautatutako lizitatzailerari esleitzeko zaio kontratua. Hautaketa arrazoitu egin beharko da, kontsulta hainbat hautagairi egin eta kontratuaren baldintzak haietako batekin edo hainbatekin negoziatu ondoren, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 169.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aipatutako Legeko 170. artikuluko a) eta b) letretan edo 171. artikuluko a) letrean aurreikusitako zirkunstantziak gertatzen direnean, kontratazio-organoak lizitazio-iragarki bat argitaratu beharko du, 142. artikuluan ageri den moduan, lanen kontratuak badira eta 155.d artikuluan adierazitako kopurua baino gutxiago balio dutenean, baina kontratuaren balio zenbatetsia 200.000 eurotik gorakoa denean.

Eskaintzak negoziatzeko eta ekonomikoki eskaintza onena zein den erabakitzeko, kontratuaren xedearekin zuzenean lotutako zenbait alderdi hartu beharko dira kontuan, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 150.1 artikuluan eta agiri honetako hamalagarren klausulan xedatutakoaren arabera.

Kontratuaren zenbatekoa kontuan hartuta, hau da, 380.032,33 euro eta 79.806,79 euro BEZarena, Udaltzatzaile izango du kontratazio hau egiteko eta espedientearen izapidetzeko eskumena, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko bigarren xedapen gehigarriaren arabera; izan ere, lanen zenbatekoa aurrekontuko baliabide arrunten % 10 baino handiagoa da.



ZIZURKILGO UDALA



3. klausula. Kontratatzailearen profila.

Kontratuei lotutako jarduerari buruzko informazioaren gardentasuna bermatzeko eta jendeak informazio hori kontsultatu ahal duela ziurtatzeko, Udal honen kontratatzailearen profilean egongo da eskura, www.zizurkil.com web-orrian. Nolanahi ere, beste publizitate-bitarteko batzuk erabili ahal izango dira, egoki ikusiz gero.

4. klausula. Kontratuaren zenbatekoa.

Kontratu honen zenbatekoa Hirurehun eta laurogei mila hogeita hamabi euro eta hogeita hamahiru zentimokoa da (380.032,33), eta kopuru horri Hirurogeita hemeretzi mila zortziehun eta sei euro eta hirurogeita hemeretzi zentimo (79.806,79) Balio Erantsiaren gaineko Zerga gehituko zaio. Hori dela eta, Laurehun eta berrogeita hemeretzi mila zortziehun eta hogeita hemeretzi euro eta hamabi zentimo (459.839,12) kostatuko da guztira.

Indarrean dagoen udal-aurrekontuko 1 0400.622.452.00.01 aurrekontu-aplikazioaren gain ordainduko da zenbateko hori, behar besteko kreditua baitago Udalak onartutako zenbatekoraino, eta egiaztatuta baitago kontratua finantzatzeko behar diren ekarpenak osorik erabiltzeko moduan daudela.

5. klausula. Kontratuaren iraupena.

“Zizurkilgo futbol zelaiaren birmoldaketa” Proiektuko lanen kontratuaren iraupena **hamar (10) astekoa** izango da.

Zuinketa egiaztatzeko aktarekin hasiko da gauzatzen obra-kontratua, kontratua formalizatzen den egunetik bost eguneko epean.

Ez da luzapenik egongo.

6. klausula. Kontratazio-mahaia.

Kontratazio-mahaiko buru korporazioko kide bat edo funtzionario bat izango da, eta korporazioko funtzionario batek beteko ditu idazkari-lanak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko bigarren xedapen gehigarriko 10. puntuan ezarritakoaren arabera, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuko 21.2 artikuluaekin lotua, urriaren 30eko 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, partzialki garatzen duena. Mahaikide izango dira, gutxienez, lau kide, tartean idazkaria, edo, hala behar duenean, korporazioari aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna duen organoaren titularra, eta kontu-hartzailea, bai eta funtzionarioen, lan-kontratuko langileen edo zinegotzien artean aukeratuta, contratazio-organismoak izendatutako beste batzuk ere.

Honako kide hauek osatuko dute contratazio-mahaia:



ZIZURKILGO UDALA



Mahaiburua:

- Zizurkilgo Udaleko alkatea edo berak eskuordetutako zinegotzia.

Kideak:

- Alkatetzak izendatutako bi zinegotzi.
- Korporazioko idazkari kontu-hartzailea.
- Udal arkitektoa.
- Udal aparejadorea.

Idazkaria:

- Udaleko funtzionario bat.

7. klausula. Administrazioaren prerrogatibak.

Kontratazio-organoak prerrogatiba hauek ditu, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 210. artikulua araberak:

- a) Kontratua interpretatzea.
- b) Kontratua betetzean sortutako zalantzak ebaztea.
- c) Interes publikoa dela-eta kontratua aldatzea.
- d) Kontratua suntsiaraztea erabakitzea eta suntsiaraztearen ondorioak zehaztea.

8. klausula. Kontratistaren sailkapena.

Kontratu honen zenbatekoa kontuan hartuta, kontratatzeke nahitaezko baldintza izango da enpresariak sailkapen hau izatea, oraindik indarrean dagoen Herri Administrazioen Kontratuen Legeari buruzko testu bategina onartzen duen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuko 25.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko laugarren xedapen iragankorrak hala ezartzen baitu:

Taldea: A Azpitaldea: 2 Kategoria: c

9. klausula. Proposamenak aurkezteko modua.

Kontratazio-organoak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profilean argitaratuko du proposamenak aurkezteko lizitazio-iragarkia.

Hautagai bakoitzak ezin izango du eskaintza bat baino gehiago aurkeztu. Bestalde, banakako eskaintza bat aurkeztu badu edo aldi baterako elkarre batera aurkeztu bada, ezin izango du aldi baterako beste elkarre batera proposamenik izenpetu. Arau horietako bat hautsiz gero, hark izenpetutako eskaintzetako bat bera ere ez da onartuko.

Eskaintza bat aurkezteak esan nahi du enpresariak onartzen dituela agiri honetako eta baldintza teknikoaren agiriaren klausulak, inolako baldintzarik gabe.



ZIZURKILGO UDALA



Proposamenak Udaletxean aurkeztuko dira, Hernandorena kalea 6, 20159 Zizurkil helbidean, bi gutun-azaletan, aurrerago zehaztutako moduan, jendearen arretarako ordutegian, lizitazio-iragarkia argitaratzen denetik **hamahiru (13) egun naturaleko epean**.

Dokumentazioa hainbat erataria aurkeztu ahal izango da: zuzenean udal-bulegoetan, posta bidez, telefax bidez, edo bitarteko elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabiliz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan ezarritako tokietan.

Eskaintzak posta bidez bidaltzen direnean, enpresariak dataren zigilua jartzeko eskatu beharko du posta-bulegoan, eta egun horretan bertan telex, fax edo telegrama bidez jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari bidali egin duela. Jakinarazpen horretan, espedientearen zenbakia, kontratuaren xedearen titulu osoa eta hautagaiaren izena adierazi beharko ditu. Udal-idazkariak telex, fax edo telegrama horretan egindako diligentzia bidez egiaztatuko da jaso dela.

Bi baldintza horiek bete ezean, eta kontratazio-organoak eskaintza lizitazio-iragarkian zehaztutako epea amaitu ondoren jasoz gero, ez da eskaintza hori onartuko.

Edozein kasutan, aipatutako epea amaitu eta bost egunera eskaintzarik jaso ez bada, ez da onartuko.

Eskaintza aurkezteko erabil daitezkeen baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoek azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bategineko hamaseigarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzak ere bete beharko dituzte.

10. klausula. Proposamenen edukia.

Proposamenak bi gutun-azal itxitan aurkeztuko dira, eta hau idatziko da gutun-azaletan: «ZIZURKILGO FUTBOL ZELAIAREN BIRMOLDAKETA PROIEKTUAREN OBREN KONTRATAZIOA LIZITATZEKO ESKAINTZA».

Horrez gain, gutun-azaletan, bakoitzaren edukia adieraziko da:

- 1 GUTUN-AZALA: GAITASUNA ETA KAUDIMENA
- 2 GUTUN-AZALA: ESKAINTZA

Gutun-azal bakoitzaren barruan, aparteko orri bat sartuko da, zer eduki dagoen adierazteko. Edukiak zenbaki bidez zerrendatuta azalduko dira.

Gutun-azaletan sartuko diren dokumentuek originalak edo kopia legeztatuak izan beharko dute, indarrean dagoen legediaren arabera.

Gutun-azalak itxita eta behar bezala sinatuta aurkeztuko dira. Gutun-azaletan ageriko dira lizitatzailaren izen-abizenak edo enpresaren izena.



ZIZURKILGO UDALA



I GUTUN-AZALA: GAITASUNA ETA KAUDIMENA

1. I gutun-azalean, honako hauek sartuko dira:

a) **jakinarazpenetarako helbidea**, bai eta fax-zenbakia edota helbide elektronikoa ere, jakinarazpenak egiteko.

b) **Lizitatzailaren erantzukizunpeko adierazpena**, Administrazioarekin kontratua egiteko legeak ezarritako baldintzak betetzen dituela adierazten duena.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 146. artikuluko laugarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, kontratazio-organoak ezartzen du artikuluko horretako lehenengo paragrafoan adierazitako dokumentazioaren ordez lizitatzailaren erantzukizunpeko adierazpena egin behar dela, Administrazioarekin kontratua egiteko legeak ezarritako baldintzak betetzen dituela adierazten duena. Kasu horretan, esleipen-proposamena jasotzen duen lizitatzailak kontratazio-organoaren aurrean egiaztatu beharko du, kontratuaren esleipena jaso aurretik, badituela eskatutako dokumentuak eta baliozkoak direla.

Eredu honen arabera aurkeztuko da:

«ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

_____ jaunak/andreak, jakinarazpenetarako helbide gisa
_____ herria, _____ kalea, _____ zenbakia duenak, eta nortasun-
agiriaren zenbakia _____ duenak, Identifikazio Fiskalerako Zenbakia
_____ duen _____ izeneko erakundearen ordezkari gisa,
"Zizurkilgo futbol zelaiaren birmoldaketa" Proiektuaren obren lizitazioan parte hartzeko
ondorioetarako,

ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

LEHENENGOA. Parte hartu nahi duela "Zizurkilgo futbol zelaiaren birmoldaketa" Proiektuaren obren kontratazioan.

BIGARRENA. Betetzen dituela aipatutako lanen kontratuaren esleipendun izateko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 146. artikuluko lehenengo paragrafoan eskatutako aurrez bete beharreko baldintzak, zehazki honako hauek:

- Nortasun juridikoa baduela, eta, hala badagokio, ordezkaritza.
- Enpresa behar bezala sailkatuta dagoela, eta, hala badagokio, ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun tekniko edo profesionala badituela.
- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 60. artikuluan ageri diren kontratatzeko debekurik ez duela. Horrez gain, indarrean dauden xedapenak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela.
- Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dela, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, eta, kasua suertatuko balitz, lizitatzailari legokiokkeen atzerriko jurisdikzioko foruari uko egiten diola. (Atzerriko enpresen kasuan)
- Jakinarazpenak helbide elektronikoa honetara bidali behar zaizkiola: _____.



ZIZURKILGO UDALA



HIRUGARRENA. Konpromisoa hartzen duela egiaztatzeko adierazpen honetako bigarren atalean aipatzen diren dokumentuak badituela eta baliozkoak direla, baldin eta kontratuaren esleipendun izateko proposatzen bada edo hori egiteko eskatzen bazaio edozein garaitan.

Eta, hala jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut _____n, 2014ko _____aren
____(e)(a)n

Adierazpenaren egilearen sinadura»

c) Lizitatzailleak **ekonomia- eta finantza-kaudimenari eta gaitasun teknikoari** buruz egin nahi dituen **adierazpenak**, bai eta sailkapen-ziurtagiria ere.

2 GUTUN-AZALA: ESKAINTZA

2 gutun-azalean, honako hauek sartuko dira:

a) Eskaintza ekonomikoa:

Eredu hau oinarritzat hartuta aurkeztuko da:

«_____ jaunak/andreak, jakinarazpenetarako helbide honekin:
_____ (herria), _____ kalea, _____ zenbakia; NAN _____;
_____ entitatearen izenean (IFK: _____) diharduela, jaso duenez
gonbidapena hurrengo lan hauek egiteko eskaintza aurkezteko: "Zizurkilgo futbol zelaiaren birmoldaketa" Proiektuaren obrak, eta badakienenez zein diren bete behar diren baldintzak publikitate bidezko eta presako izapidetzako prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzeko lanen kontratua, adierazten dut, batetik, ezagutzen dudala kontratuaren oinarri den agiria eta, bestetik, onartzen dudala osorik, eta era berean, konpromisoa hartzen dudala kontratuaren xede dena burutzeko, zenbateko hauen truke: _____ euro eta BEZari dagozkion _____ euro.

_____(e)n, 2014ko _____aren ____ (e)(a)n.

Hautagaiaren sinadura».

b) Kontratazio-mahaiari eskaintzak baloratzeko aukera emango dioten dokumentuak, negoziazio-alderdiak kontuan hartuta.

11. klausula. Proposamenak irekitzea.

Kontratazio-mahaia osatuko da eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egun baliodunean, 12:00etan. Parte hartzeko eskaerak eta administrazio-dokumentazioa kalifikatuko ditu.

Egoki irudituz gero, mahaiak epe bat eman ahal izango du, gehienez hiru eguneko, lizitatzailleak zuzendu ahal izateko aurkeztutako dokumentazioan ikusitako akatsak edo aurkezteko aurkeztu ez duen dokumentazioa.



ZIZURKILGO UDALA



Eskatzaileak nor diren, eta zer kaudimen eta gaitasun duten egiaztatu ondoren, kontratazio-mahaiak aurkeztutako eskaintzak baloratuko ditu, baldintza-agiri hauetan finkatutakoaren arabera. Negoziazio-fasera igaroko dira balorazio horretan puntu gehien lortzen dituzten hiru proposamenak.

12. klausula. Eskaintzak baloratzea.

a) 2 izarreko FIFA zelaiaren amaierako ziurtagiria

Ez da onartuko 2 izarreko FIFA zelaiaren amaierako ziurtagiririk ez duen eskaintzarik. Horrek ez dio aparteko gasturik eragingo Udalari. Eskaintza guztietan bereziki adieraziko da lanak amaitzean 2 izarreko FIFA zelaiaren amaierako ziurtagiria emango zaiola Udalari, aparteko kosturik gabe. Udalak ez du ziurtatuko/ordainduko belar artifizialaren unitatea, harik eta aipatutako ziurtagiria jaso arte.

b) Esleipen-irizpide objektiboak:

1. Eskaintza ekonomikoa: 0 puntutik 60 puntura

Onartutako proposamenetako eskaintza ekonomikoen puntuazioak kalkulatzeko, interpolazio lineala egingo da, jarraian adierazitako puntuek definitzen duten zuzenean, puntu horiek mugatzen duten segmentuaren barruan:

Beherapen maximoa (BMAX)	Puntuazio maximoa (PMAX)
Batez besteko beherapena gehi 5 puntu (BBB+5)	$PMAX \times (100 - 0,05 \times BBB) / 100$
Batez besteko beherapena (BBB)	$P(BBB+5) \times (100 - 0,20 \times BBB) / 100$
Batez besteko beherapena ken 8 puntu (BBB-8)	$PBBB \times (100 - 0,50 \times BBB) / 100$
Batez besteko beherapena ken 40 puntu edo txikiagoa (BBB-40)	Puntuaziorik ez

Formula horiek aplikatzerakoan, eskaintza baten beherapena (B) da lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren (BEZik gabe) eta eskaintzako aurrekontuaren (BEZik gabe) arteko aldea, ehunekotan adierazita.

$P(BBB+5)$ eta $P(BBB)$ dira batez besteko beherapena +5 eta batez besteko beherapena, hurrenez hurren.

Eskaintzako alderdi ekonomikoen azken balorazioa bigarren hamarrekotan biribilduko da.

Eskaintza bat ezohikoa edo neurritz kanpoko delako adieraziko da, baldin beraren beherapen portzentajeak 10 puntu edo gehiagok gainditzen badu onartutako oinarritzko eskaintza guztien beherapen portzentajeen batez besteko aritmetikoa. Adierazpen hori egin aurretik, informazioa eskatu beharko zaie ustez eskaintza horretan parte hartu duten lizitatzailerik guztiei, eta aholku teknikoak, dagokion zerbitzuari.

2. Berme-epea, baldintzak eta beharrezko mantentzea: 0 puntutik 30 puntura

20 puntu emango zaizkio aparteko kosturik gabe 8 urteko berme-epea eman eta, berme hori indarrean egon dadin, tarte horretan beharrezko mantentze-lan guztiak egiten dituen eskaintzari. Edozer arrazoi delako ere, tarte horretan bermea indarrean egongo da; izan ere, erabilera



ZIZURKILGO UDALA



desegokiak edo aurreikus ezin daitekeen ezinbesteko arrazoiren batek baino ezin izango du bermean eragin.

5 puntu emango dira, aurreko paragrafoan ezarritako baldintzak betez, bermea luzatzen den bi urteko tarte bakoitzeko.

Alor honetan ez zaio punturik emango hasierako paragrafoan deskribatutakoa eskaintzen ez duenari.

c) Balio-iritziaren mende dauden esleipen-irizpideak:

1. Kalitate-kontroleko programa: 0 puntutik 10 puntura

Kalitate-kontroleko programa, prezio unitarioen arabera baloratuta, proiektuko baldintza teknikoen agirian zehaztutakoari lotua, proiektua gauzatzeko aurrekontuaren % 2 baino gutxiago balio duena eta aurrekontuan bertan sartua. Ez da zuzenean ordainduko, proiektuko unitate guztien zeharkako kostuan jasota baitago, prezioen justifikazioko eranskinean zehaztuta dagoen bezala.

13. klausula. Enpresarekin negoziatzea daitezkeen alderdiak.

- Prezioa
- Berme-epea eta baldintzak
- Berme-epeko mantentzea, mantentzearen baldintzak, aldizkakotasuna, egin beharreko lanak.
- Zelai artifizialaren eta lan osoaren kalitate-kontrola
- Gauzatze-epea

14. klausula. Negoziazio-fasea.

Kontratazio-mahaiak hiru eskaintza onuragarrienak zein diren erabaki ostean, negoziazio-fasera igaroko dira. Negoziazio-fasean kontuan hartuko dira aurreko puntuan adierazitako alderdiak.

Fase horretan, lizitatzailerekin negoziatuko da, aurkeztutako eskaintzak baldintza berezien agiri honetan, proiektu teknikoan eta dokumentu osagarrietan adierazitako baldintzetara egokitzeko, eta, horrela, ekonomikoki eskaintza onena zein den zehazteko.

Negoziazio-prozesuaren ondorioz, lizitatzailerak hasieran aurkeztutako eskaintzak aldatzen badira, amaierako eskaintzak hasierako baldintza beretan dokumentatuko dira.

Negoziazioan zehar, zainduko da lizitatzailerak guztiek tratatu bera jaso dezatela. Bereziki, ez zaie lizitatzailerari inolako informaziorik emango, modu diskriminatzailean, baldin eta informazio hori izateak beste lizitatzailerari baino abantaila handiagoa emango badie.

Nolanahi ere, bermatuko da aurkeztutako dokumentazioaren eta eskaintzen konfidentzialtasuna. Horretarako, lizitatzailerak batek beste lizitatzaileraren baten dokumentazioa eskatzen badu, azken lizitatzailerak horri baimena eskatuko zaio.



ZIZURKILGO UDALA



Negoiazioaren ardura duen organoak txosten bat egingo du, eta bertan jasota geratuko dira negoziazioan zehar egindako jarduera guztiak. Horrez gain, adieraziko da bi aldeek onartzen dituztela kontratuko baldintzak. Esleipena eskuratzen duen lizitatzailarekin adostutako negoziazio-alderdiak jasota geratuko dira kontratuan.

15. klausula. Eskaintzen sailkapena eta esleipen-proposamena.

Negoiazio-fasea amaitzean, aurkeztutako proposamenek dagokien txosten teknikoa izango dute. Txostenean jasota geratuko da negoziatutako alderdi guztien ponderazioa.

Txostenak jasota, kontratazio-mahaia berriro elkartuko da, eta eskaintza onuragarriena aurkeztu duen hautagaia proposatuko du.

16. klausula. Dokumentazioa eskatzea.

Kontratazio-organismoak eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailari eskatuko dio, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bost egun balioduneko epean, agiri hauek aurkezteko:

1) Enpresarien izaera juridikoa egiaztatzen duten agiriak eta, hala badagokio, bere ordezkaritza, bai eta enpresariak **jarduteko duten gaitasuna** ere. Honela egiaztatuko da:

a) **Pertsona juridikoak** diren enpresaburuek eratze-agiriaren edo eskrituraren bidez, estatutuen bidez edo sortze-egintzaren bidez, jarduerak erregulatzeko arauak bertan jasota, eta, hala dagokionean, dagokion erregistro publikoan izena emanda, nolako pertsona juridikoa den kontuan hartuta.

Beste norbaiten ordezkari agertu edo proposamenak beste batzuen izenean sinatzen dituztenek ahalorde notarialaren kopia bat aurkeztu beharko dute, udal-idazkariak askietsitakoa.

Lizitatzaila pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon behar du, legez eska daitekeenean.

Era berean, ordezkarietako ahalorde askietsia duen pertsonak Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua edo agiri horren notario-lekukotza aurkeztu beharko du.

b) **Europar Batasuneko kide den estaturen batekoak izan, baina Espainiakoak ez diren** enpresarien kasuan, bizi diren Estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, edo aplikatzekoak diren erkidegoko xedapenen arabera zinpeko aitortpena edo ziurtagiria aurkeztu beharko dute, araudian ezarritako baldintzak betez.

c) **Atzerriko gainerako enpresariak** enpresaren helbideari dagokion Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrek edo kontsuletzeko bulegoak igorritako txostena aurkeztu beharko dute.



ZIZURKILGO UDALA



d) **Enpresen aldi baterako elkarteen** kasuan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 59. artikuluan xedatutakoa bete beharko da. Nolanahi ere, aldi baterako elkartea osatzen dutenek adierazi beharko dituzte beren izen-abizenak, egoera, bakoitzaren partaidetza eta konpromisoa hartzen dutela aldi baterako enpresa-elkartea osatzeko, kontratuaren esleipena eskuratzen badute.

2) Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 60. artikuluan adierazitako **kontratatzeko debekurik ez dutela** frogatu beharko dute enpresariak. Horretarako:

a) Kasua zein den, lekukotza judiziala edo administrazio-ziurtagiria aurkeztu beharko dituzte. Horretarako eskuduntza duenak agiri horiek egin ezin baditu, administrazioko agintaritzak, notario publiko batek edo erakunde profesional kualifikatu batek egindako erantzukizunpeko adierazpen batek ordezkari ditzake.

b) Europar Batasuneko kide diren estatuetakoen enpresak badira, dagokion estatuko legerian horretarako aukera ematen bada, enpresariak agintaritzaren judizial baten aurrean egindako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango du.

3) **Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala badutela egiaztatzen dutenak. Hautaketa-irizpideak:**

Proposamenak aurkezteko gonbidapena jasoko da, kaudimena baloratzeko irizpide objektibo hauen arabera:

Enpresariaren **kaudimen ekonomiko eta finantzarioa** honako moduetako baten edo zenbaiten bidez egiaztatzen ahal izango da:

a) Finantza-erakundeek egin beharreko adierazpenak, edo, hala badagokio, arrisku profesionaletarako kalte-ordain aseguruaren ziurtagiria.

b) Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutako urteko kontuen bidez. Kontuak erregistro ofizialean aurkezteko betebeharrak ez duten enpresariak behar bezala legeztatutako kontabilitate-liburuak aurkeztu ahal izango dituzte, ziurtagiri gisa.

c) Negozio guztien bolumenari buruzko adierazpena, eta, hala badagokio, kontratuaren xede den jardueraren eremuko. Jardueraren sorrera- edo hasiera-data kontuan hartuta, gehienek azken hiru urteetako ekitaldietako negozioen bolumena hartu beharko da kontuan, datu horiek eskuragarri badituzte.

Arrazoi justifikatu bat dela eta, enpresariak ezin baditu aurkeztu eskatutako erreferentziak, kontratazio-organismoak egoki irizitako beste edozein dokumentu erabili ahal izango du bere kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko.

Enpresariaren **gaitasun tekniko** edo profesionala modu hauetako baten edo batzuen bidez egiaztatzen ahal izango da:



ZIZURKILGO UDALA



a) Azken bost urteetan egindako lanen zerrenda, lan garrantzitsuenak ondo egin direla egiaztatzen duten ziurtagiriak erantsirik dituztela. Agiri horiek ondokoak jasoko dituzte: zenbatekoa, eta lanak egindako egunak eta tokia. Era berean, zehaztu beharko dute lanbidea arautzen duten erregelen arabera egin diren, eta egoki gauzatu diren. Dagokionean, agintari eskudunak kontratazio-organoari jakinaraziko dizkio zuzenean ziurtagiri horiek.

b) Lanak egiteko erabiliko diren teknikariak edo unitate teknikoak adierazten dituen aitortpena, horiek enpresakoak izan edo ez; bereziki, kalitate-kontrolaren erantzuleak. Hori guztia dagokion ziurtagiriarekin egiaztatua.

c) Enpresariaren eta enpresako zuzendaritzako kideen titulu akademikoak eta profesionalak, eta, bereziki, lanen erantzuleenak.

d) Egoki den kasuetan, kontratua exekutatzean enpresariak ingurumena kudeatzeko kontuan hartu eta aplikatuko dituen neurrien zerrenda.

e) Enpresaren urteko batez besteko langileen kopuruaren adierazpena, eta zuzendaritzako kideen garrantzia azken hiru urteetan, dagokion ziurtagiriarekin batera.

f) Lanak egiteko erabili ahal izango duen makineriaren, materialaren eta talde teknikoaren adierazpena, dagokion ziurtagiriarekin batera.

4) Atzerriko enpresen kasuan, adierazpen bat aurkeztuko dute jakinarazteko Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, eta, kasua suertatuko balitz, lizitatzailerari legokiokkeen atzerriko jurisdikzioa foruari uko egiten diotela.

5) Egiaztatu beharko du egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak edo baimena eman beharko dio kontratazio-organoari zuzenean eskuratu ahal izateko ziurtagiri horiek, eta ziurtatu beharko du kontratua gauzatzeko erabili edo jarri beharreko bitartekoak badituela, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 64.2 artikulua arabera.

6) Behin betiko bermea eratu izanaren ziurtagiria.

Administrazioarekin kontratua egiteko eskatzen diren gaitasunaren eta kaudimenaren baldintzak betetzen dituztela balioesteko unea proposamenak aurkezteko epearen amaiera izango da.

17. klausula. Behin betiko bermea.

Eskaintza hoberena aurkeztzen duen hautagaiak esleipenaren zenbatekoaren % 5eko bermea eratu beharko du, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpo.

Berme hori ondorengo moduetatik edozeinetan eratu ahal izango da:

a) Dirutan, Udalak horretarako adieraziko dion kontu korrontean.



ZIZURKILGO UDALA



- b) Abal bidez, Espainian jarduteko baimena duten bankuek, aurrezki kutxek, kreditu kooperatibek, kredituko finantza-erakundeek edo elkarren bermerako sozietateek mailegu bidez emanda.

Bermea ez da itzuli edo ezeztatuko kontratua modu egokian gauzatu arte eta bermearen epea bukatu arte.

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 100. artikuluan ageri diren kontzeptuengatik erantzungo du bermeak. Kontratua amaitzen denetik urtebete igaro, eta artean ez bada harrera formalki egin ezta likidaziorik ere egin, eta horren arrazoiak ezin bazaizkio kontratatari egotzi, orduan, bermea itzuli edo ezeztatu egingo da, baina horretarako beharrezkoa izango da aipatutako 100. artikuluan ageri diren erantzukizun-kausak ez gertatzea.

18. klausula. Kontratuaren esleipena.

Kontratazio-organoak kontratua esleitu beharko du, proposamena jasotzen duenetik hurrengo hiru egun balioduneko epean.

Kontratazio-organoak ezingo du utzi kontratua eman gabe, baldintza-agirian agertzen diren baldintzen arabera onargarria den proposamen edo eskaintzaren bat jaso bada.

Esleipena arrazoitutako ebazpenaren bidez erabakiko du kontratazio-organoak. Ebazpen hori hautagaiei edo lizitatzailerei jakinaraziko zaie, eta, era berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kasu guztietan, jakinarazpenak nahitaez azaldu beharko du informazio jakin bat, bai kanpoan utzitako lizitatzailerekin, bai baztertutako hautagaiekin esleipen erabakiaren aurka behar bezala arrazoitutako errekurtsoa aurkeztu ahal izan dezaten. Bereziki, ondorengoak azalduko ditu:

- Baztertutako hautagaiei dagokienez, bere hautagaitza ezesteko arrazoiak azalpen labur bat.
- Esleipen-prozeduratik kanpo utzi diren lizitatzailerei dagokienez, euren eskaintza ez onartzearen arrazoiak azalpen labur bat.
- Kasu guztietan, esleipendunaren izena eta bere eskaintzaren ezaugarri eta abantailak, onartu diren beste eskaintzekin alderatuta hori aukeratzeko erabakigarriak izan direnak.
- Bai jakinarazpenean, bai kontratatzailearen profilean ere errekurtsoa formalizatzeko epea azalduko da.

19. klausula. Kontratua formalizatzea.

Kontratua formalizatuko da esleipena jakinarazi eta hurrengo hamar egun balioduneko epean; agiri hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotara sarbidea izateko.

Kontratistak eska dezake kontratua eskritura publiko bihurtzeko. Kasu horretan, eragindako gastuak bere kontura izango dira.



ZIZURKILGO UDALA



20. klausula. Esleipendunaren eskubideak eta betebeharrak.

Kontratuaren erregimen juridikotik eratorritako betebeharez gain, berariazko ondoko betebeharrak izango ditu administrazioak:

A) Kontratistari ordaintzea.

Gauzatutako lanen ziurtapenak obra-zuzendariak adierazitako epeetan egingo dira. Ziurtatutako lana Proiektu Teknikoko prezioen arabera baloratuko da. Ziurtapenak behin-behineko izaera edukiko dute, eta azkeneko likidazioan egin daitezkeen neurketa eta ziurtapenen mendea geratuko dira. Ondorioz, ez dute esan nahi ez onartzen direnik, ezta aurreikusten dituzten lanak hartzen direnik ere.

Lanak kontratuko epearen barruan egiteko, behar den abiaduran baino azkarrago egin ahal izango ditu kontratistak, beti ere obra-zuzendaritzaren iritziz hala egitea ez dela komeni adierazten ez den bitartean.

Konturako ordainketak egin ahal izango dira, kontratistak aldeztetik eskaera idatzia eginda, obrako material, instalazio eta ekipamenduen metaketagatik, hurrengo xedapenak horretarako zehazten dituzten modu eta bermeekin: azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 232. artikulua eta Administrazio Publikoetako Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 155. artikulutik 157.era.

B) Kontratistaren betebeharrak.

Kontratuaren erregimen juridikotik eratorritako betebeharez gain, berariazko ondoko betebeharrak izango ditu kontratistak:

- Betebehar laboral eta sozialak. Kontratistak nahitaez bete behar ditu indarrean dauden xedapenak hurrengo arlo hauetan: lan, gizarte-segurantzak eta laneko arriskuen prebentzioa.
- Kontratistak beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak jarri edo adskribitu behar ditu kontratua gauzatzeko (azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 64.2 artikulua).
- Azpikontratazioen kasuan, kontratistak bete egin behar ditu hurrengo xedapen honetan ezarritako baldintzak: azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 227. artikulua.
- Obrak seinaleztatzea. Kontratista behartuta dago bere kontura instalatzeko beharrezkoak diren seinaleak, honako hauek adierazteko: obrarako sarbidea, lanek hartzen duten zonako zirkulazioa eta lanengatik arriskutsuak izan daitezkeen puntuak aipatutako gunean, bai eta muga eta inguruetan ere.
- Kontratistak Laneko Segurtasun eta Osasun Planean jasotako aurreikuspenak bete beharko ditu.



ZIZURKILGO UDALA



- Kontratatari dagozkion gastuak. Kontratataren kontura izango dira esleipenaren iragarkien edo iragarkien gastuak eta zergak, eta indarrean diren xedapenen arabera aplikaziozkoak diren gainerako guztiak, haiek adierazitako moduan eta zenbatekoarekin. Lana finantzatzeko duten administrazioetako batek hala eskatuko balu, kontratatistak bere kontura jarriko ditu lanaren kartel iragarleak, erabakitzen diren ezaugarriei.

21. klausula. Laneko Segurtasun eta Osasun Plana.

Kontratua formalizatuta, esleipendunak obraren gaineko Laneko Segurtasun eta Osasun Plana egingo du, Proiektuko Segurtasun eta Osasun Azterketari egokituta, edo, hala badagokio, Proiektuko Oinarrizko Segurtasun Azterketari lotua, eta bertan aztertu, garatu eta osatu egingo dira haietan ezarritako aurreikuspenak.

Hala badagokio, plan horretan sartuta egongo dira prebentzio-ko neurri alternatiboen proposamenak, kontratatistak proposatuak, dagokien justifikazio teknikoarekin. Horrek ezin izango du ekarri Azterketak aurreikusitako prebentzio-mailaren murrizketarik.

Plana Udalak onartu behar du lana hasi baino lehen, segurtasun eta osasun arloko koordinatzailearen edo obrako zuzendaritza fakultatiboaren (baldin eta ez bada nahitaezkoa koordinatzailea izendatzea) txostena aurretik dela, eta lan-administrazio-ko agintaritzari jakinaraziko zaio. Izapide hori bukatzean, zuzenbide-akta egin, eta obrari ekingo zaio.

22. klausula. Prezioak berrikustea.

Kontratu honen prezioa ezin izango da berrikusi.

23. klausula. Lanak hartzea eta berme-epea.

Lanak bukatzean, haien harrera egiteko partaide hauek agertu beharko dute: kontratuaren arduraduna (izendatuta badago) edo haren ordezkariak duen fakultatibo bat, administrazioak izendatua; obren zuzendaritzaren arduraduna eta kontratista (egokitzen jotzen badu, bere fakultatiboak lagunduta).

Harrera egin eta hiru hilabeteko epean, egindako lanen azken ziurtapena onartu beharko du kontratazio-organismoak. Zenbateko hori kontratatari ordainduko zaio, kontratuaren likidazioaren kargura.

Lanak egoera onean badaude, eta aurreikusitako aginduen arabera, administrazio kontratatzaileak eta haren ordezkariak izendatutako funtzionario teknikoak hartutzat joko ditu, eta dagokion akta egingo du. Orduan hasiko da berme-epea.

Lanak ez badaude hartzeko moduan, halaxe jasoko da aktan. Obren zuzendaritzak ikusten diren akatsak adieraziko ditu, haiek konpontzeko aginduak zehaztu eta epeak jarriko ditu. Aipatu epea iragan eta gero, kontratatistak ez baditu egin agindutako konponketak, beste epe luzeaz bat eman ahal izango zaio edo kontratua desegin.



ZIZURKILGO UDALA



Hiru (3) urteko berme-epea jarri da, lanen harrera-datatik kontatuta.

Berme-epea amaitu baino hamabost egun lehenagoko epealdiaren barruan, obraren zuzendari fakultatiboak txosten bat egingo du lanen egoerari buruz, ofizioz edo kontratistak hala eskatuta. Txostena aldekoa bada, kontratista erantzukizunetatik kanpo geratuko da, baina ez ezkutuko akatsen erantzukizunetatik, eta bermea itzuli edo ezeztatu egingo da, kontratuaren likidazioa egin eta, hala badagokio, ordaintzeko dauden obligazioak ordaindu hirurogei eguneko epearen barruan. Txostena kontrakoa bada, eta ikusitako akatsak obrak egiteko garaian gertatuak badira eta ez erabileragatik, berme-epearen barruan, zuzendari fakultatiboak bidezko aginduak emango dizkio kontratistari, eraikitakoa behar bezala konpontzeko. Epe bat jarriko zaio horretarako, eta, epe horretan, obrak mantentzearen ardura izaten jarraituko du, berme-epea luzatu izanagatik inolako kopururik jasotzeko eskubiderik gabe.

Berme-epea bukatu ondoren obra hondatzen bada eraikuntzako ezkutuko akatsengatik, kontratistak ez duelako behar bezala bete kontratua, berak erantzun beharko du hamabost urteko epean (harrera datatik kontatuta) agertzen diren kalte eta galerengatik.

24. klausula. Kontratua gauzatzea.

Kontratua gauzatzen hasiko da zuinketaren bigarren egiaztapen-akta egin eta obrak hastean. Horretarako, kontratuan ezartzen den epearen barruan (ezin izango da izan hamabost egun baino handiagoa, kontratua formalizatzen denetik kontatuta, salbuespenezko kasu justifikatuetan izan ezik), lanez arduratzen den administrazioko zerbitzuak, kontratista aurrean dela, lanen Proiektua onartzerakoan egindako zuinketa egiaztatuko du, bigarren akta eginez. Emaitzaren akta bi alde interesdunek sinatuko dute, eta ale bat kontratua egin zuen organoaren esku utziko da.

Lanak egiterakoan zorrozkari jarraitu beharko zaie Baldintza Administratibo Berezien Agiri honetan ezarritakoari, kontratuaren oinarri den proiektuari eta obren zuzendari fakultatiboak kontratistari emandako aginduei, eta, hala badagokio, kontratuaren arduradunak emandako aginduei, bakoitzak bere eskumenen barruan.

Kontratista behartuta dago kontratuan lanak egiteko ezarritako epeak betetzera: bai obra osoaren epea, bai bata bestearen atzetik egitekoak diren obra partzialenak ere.

Kontratista berandutzen ari dela ulertuko da adierazitako epeak igarotzean, eta ez da beharrezkoa izango administrazioaren alde aurretiko ohartarazpenik.

Administrazioak adostu ahal izango du kontratua gauzatzen hastea, kontratua oraindik formalizatu gabe egon arren, beti ere dagokion bermea osatu bada.

Esleipena jakinarazten denetik kontatzen hasita, hamabost egun baliouduneko epea egongo da, gehienez, kontratua gauzatzen hasteko. Epe hori gaintzen bada, kontratua suntsitu daiteke, salbu atzerapena Administrazio kontratatzaileari eta kontratistari ez dagozkien arrazoiak direla eta gertatzen bada, eta hala jasota geratzen bada dagokion ebazpen arrazoituan.



ZIZURKILGO UDALA



25. klausula. Kontratua aldatzea.

Kontratua osatu ondoren, kontratazio-organoak interes publikoko arrazoiengatik eta ustekabeko kausei erantzuteko bakarrik egin ahal izango ditu aldaketak, eta espedientearen behar bezala justifikatu beharko da horretarako beharra. Aldaketa horiek ezin izango dute ondorioz izan kontratuko funtsezko baldintzen gainean.

Esleipendunak eskaintzan adierazitako prezioa ezin izango da aldatu, eta ez dira ordainduko lizitatutako proiektuaren hutsuneak edo akatsak zuzentzeko kontratuan egin beharreko aldaketak.

Ez da kontratuaren aldaketatzat hartuko kontratuaren xedea zabaltzea, baldin eta zabaltze hori ezin bada hasierako proiektuan sartu zuzenketa baten bidez, edo zabaltze hori erabilera edo aprobetxamendu independentea izan dezakeen prestazioa gauzatzea bada edo kontratua prestatzeko dokumentazioan jaso ez diren beste helburu batzuk betetzeko prestazioa gauzatzea bada. Kasu horretan, bereizita kontratatutako beharko da, eta, hala badagokio, prestazio osagarriak kontratatutako araubidea aplikatu ahal izango da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 171.b) artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Ildo horretatik, obra kontratuak esleitu ahal izango dira prozedura negoziatuaren bidez, baldin eta proiektuan edo kontratuan, edo emakida-proiektuan edo hasierako kontratuan aipatzen ez ziren obra osagarriak badira, aurreikusi gabeko egoera bategatik beharrezko bihurtu direnak obra proiektuan edo kontratuan deskribatuta zegoen bezala aldaketarik gabe gauzatzeko, eta obra horren gauzatzea obra nagusiaren kontratistaren edo obra publikoaren emakidadunaren esku uzten bada, jatorrizko kontratuan ezarri ziren prezioen arabera edo, hala badagokio, prezio kontrajarrien arabera gauzatzeko. Beti ere, administrazioari eragozpen handirik eragin gabe jatorrizko kontratutik ezin bereizteko modukoak izan behar dute obra horiek, bai teknikoki bai ekonomikoki, edo, bereizi ahal izateko modukoak izan arren, guztiz beharrezkoak izan behar dute kontratua burutuko bada. Gainera, obra osagarrien zenbateko metatua ezin da izan kontratuaren hasierako prezioa baino % 50 handiagoa. Baldintza horiek betetzen ez dituzten obra osagarrien kasuan, beste kontratazio bat egin beharko da.

Halere, kontratistak obra-kontratua aldatu egin beharko du, ezinbestean, lehenbiziko paragrafoak xedatutakoarekin bat etorrira, obra-unitateak handitzea, murriztea edo kentzea eragingo duten obrak badira; edo fabrika mota baten ordezkari bestelako fabrika bat jartzeko obrak badira (fabrika mota berria kontratuan agertzen denetako bat bada). Obrak ezabatu edo gutxitzen badira, kontratistak ez du inolako kalte-ordainik eskatzeko eskubiderik edukiko.

Kontratuaren aldaketak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 156. artikulua xedatuaren arabera formalizatu beharko dira.

26. klausula. Fakturak.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriaren arabera, kontratistak eskaintutako zerbitzuen faktura aurkeztu beharko du dagokion administrazio-erregistroan, tramitatzea dagokion administrazio-organo edo -unitatera bidaltzeko.



ZIZURKILGO UDALA



Fakturan jarri beharko dira Administrazio Publikoetako Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 72. artikuluan ezarritako datuak eta baldintzak.

27. klausula. Zigorrak kontratua ez betetzeagatik.

Kontratistak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa igarotakoan burutu gabe baditu egin beharreko lanak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo lanak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorrak ezartzea, egunean 1 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Atzerapenagatik zigorrak kontratuaren % 5en multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta kontratuarekin aurrera egin dadila erabakitzeke.

Kontratistak, bere erruagatik, kontratuan zehaztutako prestazioetarako epe partzialak bete ez baditu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo aurrez zehaztutako zigorrak ezartzea.

Kontratistak ez baditu esleitzen kontratuaren exekuziorako behar diren baliabide pertsonal edo materialak, larritasunaren araberrako zigorrak ezarriko dira, gehienez ere kontratuaren aurrekontuaren % 10ekoak.

Zigorrak kontratazio-organoak erabakita ezarriko dira, kontratuaren arduradunak proposatuta (baldin badago), berehala exekutiboa izango da, eta horiek kontratistari ordaindu beharreko zenbateko osotik edo partzialetik kenduko dira zuzenean; edo, bestela, kasua denean, eratutako bermetik, ziurtapenetatik ezin denean kendu.

28. klausula. Kontratua bertan behera uztea.

Kontratua bertan behera uzteko arrazoiak honako xedapen hauetan daude jasota: agiri honetan, eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 223. artikuluan. Kontratazio-organoak erabakiko du, ofizioz edo kontratistak hala eskatuta.

Kontratua kontratistaren erruz bertan behera geratzen bada, behin betiko bermea konfiskatuko zaio, eta Administrazioari sortutako kalte eta galerek bermearen zenbatekoa gainditzen badute, kalte-ordaina ere eskatuko zaio.

29. klausula. Kontratuaren erregimen juridikoa.

Kontratu honek izaera administratiboa du, eta bere prestaketa, esleipen, ondorio eta iraungipena agiri honetako xedapenen mende egongo dira. Bestalde, agiri honetan aurreikusi gabeko kasuetan, xedapen hauek ezarriko dira: azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina; maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duena; eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako



ZIZURKILGO UDALA

Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorra onartzen duena, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateginarekin bat datorren guztian, eta 817/2009 Errege Dekretua indarrean sartu zenetik indarrean dagoen heinean; osagarri moduan, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak ezarriko dira, eta, hura ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioak izango du eskumena kontratu honetan bi aldean artean sortzen diren eztabaidak ebazteko, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 21.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Zizurkilen, 2014ko uztailaren 4n

Jarduneko Alkateak.



Baldintza Administratibo Berezien Agiri hau, 2014ko uztailaren 10ean egindako Udalbatzan onartua izan zen.

Zizurkilen, 2014ko uztailaren 11n

Idazkaria.

